



Kultur programaziorako hizkuntza irizpideak

Udalerri euskaldunetan kultura
erantzukizunez programatzeko gida



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



UEMA

www.uema.eus

koordinazioa@uema.eus

t.me/UEMAeus



(CC BY-SA 4.0)

Lan hau Creative Commons
Aitortu-Partekatu Berdin 4.0
nazioarteko lizentziapean zabaltzen
da.

Lehen argitaraldia:
Argitaratzailea:
Azala eta maketazioa:

2026ko ekaina
Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea
UEMA

AURKIBIDEA

ATARIKOA	4
1. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK	6
• Udalak zuzenean kontratatatu edo programatutako ekitaldiak eta jarduerak	6
• Udalak diruz lagundutako ekitaldiak eta jarduerak	9
• Espazio publikoan egitea baimentzen diren ekitaldiak	11
2. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA	13

Atarikoa

Udalerri Euskaldunen Eginkizun Estrategikoa

UEMAko kide diren udalerriak arnasa dira euskararentzat, eta horrela izan behar dute euskarazko kulturarentzat ere. Udalerri hauen zeregina bikoitza da: bertako erabilera soziala indartzea eta Euskal Herri osoko biziberritze prozesuaren bultzatzaile izatea. Horretarako, udalek politika ausartak eta kontzienteak garatu behar dituzte, kultura-politikak ezin baitira hizkuntzaren ikuspegitik neutroak izan.

Kultura: Biziraupenerako eta Identitaterako Zutabea

Kultura ez da aisialdi hutsa. Hizkuntza baten transmisioa, egunerokotasuna eta biziraupena bermatzeko funtsezko euskarria da. Kulturak iruditeria kolektiboa eta identitate partekatua eraikitzen ditu, eta berebiziko eragina du belaunaldi berrien hizkuntza-ohituretan, bereziki ahozkoitasuna eta jarioitasuna lantzeko orduan. Gaur egungo globalizazio eta presio erdaldunaren aurrean, euskal kulturaren presentzia indartzea herri gisa dugun erronka nagusietako bat da.

Erantzukizunez Programatzea: ardura instituzionala

Kultur programazioa egitea ez da soilik ekitaldiak antolatzea, ardura instituzionala betetzea baizik. Erantzukizunez programatzeak zera dakar:

- Euskal sormenaren ziklo osoa zaintzea: Sorkuntza lagundu eta bultzatu.
- Sortzaileen baldintzak duintzea: Euskal sortzaileen profesionalizazioa bermatuko duten bidezko kontratazioak eta ikusgarritasuna ziurtatzea, bai eta euskal sortzaileak zaintzea ere.
- Transmisioa bermatzea: Herritarrek, euskaldun izan ala ez, euskaraz sortzen denaren berri izateko bideak jartzea, ezagutzatik etorriko baitira emanaldiak eta publiko berriak.

Helburua

Gida honen helburua udalerri euskaldunetako hautetsi eta teknikariei irizpideak eta tresna praktikoak eskaintzea da. Azken batean, kultura euskaraz sustatzea ez da hautu bat, komunitatea elikatzeko eta etorkizunari begira hizkuntza biziberritzeko estrategiarik eraginkorrena baizik.

1 Hizkuntza irizpideak

Udalerriaren hizkuntza-politikaren barruan, udalaren ekitaldi eta jardueren programazioak eta komunikazioak euskararen erabilera bermatzeko eta sustatzeko irizpide argiak izan behar ditu. Jarraian, udalak zuzenean programatutako ekitaldiei, diruz lagundutako jarduerari eta espazio publikoetan baimendutako ekitaldiei aplikatu beharreko hizkuntza-irizpideak zehazten dira. Irizpide hauek udalaren hizkuntza-normalizazio estrategiaren parte dira, eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko diseinatu dira.

Irizpide hauen aplikazioaren bitartez, udalerrak bere konpromisoa berretsi nahi du euskararen sustapenean, kultur jardueren bidez hizkuntza komunitate euskaldunaren biziberritzea bultzatzeko eta euskarazko eskaintza bermatzeko udalerrri osorako estrategiaren baitan.

Udalak zuzenean kontratatu edo programatutako ekitaldiak eta jarduerak

Irizpide Orokorrak

- Udal sail edota atalek programatutako kultur jarduerak, ekitaldiak, hitzaldiak, mahai-inguruak, jardunaldi teknikoak, ikastaroak, erakusketak eta gainerakoak euskaraz izango dira, gutxienez proportzio honetan:
 - Euskalduntze indizea baino %10 gehiago ($\text{Euskalduntze indizea} = \text{Euskaldunak \%} + [\text{ja euskaldunak \%}/2]$).
- Udal sail edota atalek haur eta gazteentzako programatutako kultur eskaintza osoa euskarazkoa izango da.
- Udalak jarduera euskaraz programatzeko aukera duenean, ez du beste hizkuntza batean egingo.
- Euskara ez den beste hizkuntza bat erabiltzea salbuespena izango da. Jarduera erdaraz izan arren, ekintzaren propaganda euskaraz egingo da, eta berariaz aipatuko da ekintza ez dela euskaraz izango. Herritarrei ez zaie inolako mugarik jarriko euskaraz jarduteko, eta hizkuntza eskubideak bermatzeko bitartekoak jarriko dira.

Herritarrekiko harremana

- Herritarrekiko harremanean euskararen erabilera bermatuko da programazioan parte hartzen duten eragile guztien aldetik.

Komunikazioa

a) Idatzizko euskarriak:

Herritarrei zuzendutako programazio orri, agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskaraz egongo dira.

b) Bozgorailuetatik igortzen diren mezuak eta jartzen den musika euskaraz izango dira, bai jarduera orokorretan, bai berezietan (prestaketetan, lehiaketetan, jaietan...).

c) Publizitatea euskaraz izango da, bai ahoz zein idatziz.

d) Sare sozial, webgune nahiz bestelakoetan jarriko den informazioa euskaraz egongo da.

e) Euskararen kalitatea:

Euskararen kalitatea bermatu beharko da ahozko eta idatzizko ekintza guztietan, horretarako, beharrezkoa bada, laguntza eske udalera jo dezake arduradunak.

f) Komunikazio elebiduna:

Euskaraz gain beste hizkuntzaren bat erabili behar denean, euskarari lehentasun osoa emango zaio, bai ahoz, bai idatziz.

Ele biz edo hizkuntza gehiagotan eginiko argitalpenetan honako aukera hauek hartuko dira kontuan, hurrenkera honetan:

- Euskarazko bertsioan informazio guztia zehaztuko da, eta beste hizkuntzetako bertsioak euskarazkoaren laburpena izango dira.
- Argitalpena ele bitan edo hizkuntza gehiagotan egonez gero, alde batetik euskara hutsez irakurri ahal izatea lehenetsiko da.
- Euskara eta beste hizkuntzak bereizterik ez badago, euskarak izango du lehentasuna, bai hurrenkeran (aurrena, euskara; eta gero, besteak), bai hizkiaren tamainan (3 puntuko alde).

Udalarekin harremana

Udalak kontratazioko hizkuntza irizpideen artean udalarekiko harreman hizkuntza zein izango den zehaztuko du. Udalaren lan hizkuntza euskara da eta horregatik, udal langileekin eduki beharreko ahozko (bilerak, aurrez aurreko harremanak, telefono bidezkoak...), zein idatzizko harreman guztia (fakturak, jakinarazpenak, posta elektronikoak, txostenak...) euskaraz egingo dira .

Azpikontratazioa

Jarduera bideratzeko hezitzaile, harreragile edo bestelakorik kontratatatu behar bada, kontratatzeke baldintzen artean jarduna euskaraz normaltasun osoz bideratzeko hizkuntza gaitasuna duten giza baliabideak kontratatzea hobetsiko da.

Udalak diruz lagundutako ekitaldiak eta jarduerak

Irizpide Orokorrak

- Ekitaldiak eta jarduerak antolatzen dituzten norbanako, erakunde, elkarte nahiz enpresek udalaren dirulaguntza jasotzen badute, udal programaziorako ezarritako hizkuntza irizpide berdinak aplikaraziko zaizkie.
- Euskara ez den beste hizkuntza bat erabiltzea salbuespena izango da; eta horretarako udalaren adostasuna ezinbestekoa izango da. Jarduera erdaraz izan arren, ekintzaren propaganda euskaraz egingo da, eta berariaz aipatuko da ekintza ez dela euskaraz izango. Herritarrei ez zaie inolako mugarik jarriko euskaraz jarduteko, eta euskararen gutxieneko presentzia bermatuko da.
- Dirulaguntza jaso ondoren, ekitaldia egiteko zein iragartzeko udalak ezartzen dizkion irizpideak idatziz emango zaizkio.

Herritarrekiko Harremana

- Herritarrekiko harremanean euskararen erabilera bermatuko da programazioan parte hartzen duten eragile guztien aldetik.

Komunikazioa

a) Idatzizko euskarriak:

Herritarrei zuzendutako programazio orri, agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskaraz egongo dira.

b) Bozgorailuetatik igortzen diren mezuak eta jartzen den musika euskaraz izango dira, bai jarduera orokorretan, bai berezietan (prestaketetan, lehiaketetan, jaietan...).

c) Publizitatea euskaraz izango da, bai ahoz zein idatziz.

d) Sare sozial, webgune nahiz bestelakoetan jarriko den informazioa euskaraz egongo da.

e) Euskararen kalitatea:

Euskararen kalitatea bermatu beharko da ahozko eta idatzizko ekintza guztietan, horretarako, beharrezkoa bada, laguntza eske udalera jo dezake onuradunak.

f) Komunikazio elebiduna:

Euskaraz gain beste hizkuntzaren bat erabili behar denean, euskarari lehentasun osoa emango zaio, bai ahoz, bai idatziz.

Ele bitan edo hizkuntza gehiagotan eginiko argitalpenetan honako aukera hauek hartuko dira kontuan, hurrenkera honetan:

- Euskarazko bertsioan informazio guztia zehaztuko da, eta beste hizkuntzetako bertsioak euskarazkoaren laburpena izango dira.
- Argitalpena ele bitan edo hizkuntza gehiagotan egonez gero, alde batetik euskara hutsez irakurri ahal izatea lehenetsiko da.
- Euskara eta beste hizkuntzak bereizterik ez badago, euskarak izango du lehentasuna, bai hurrenkeran (aurrena euskara eta gero besteak), bai hizkiaren tamainan (3 puntuko aldea).

Espazio publikoetan egitea baimentzen diren ekitaldiak

Irizpide Orokorrak

- Ekitaldiak eta jarduerak antolatzen dituzten norbanako, erakunde, elkarte nahiz enpresek udalaren espazio publikoaren erabilerarako baimena jasotzen badute, udal programaziorako ezarritako hizkuntza irizpide berdinak aplikaraziko zaizkie.
- Euskara ez den beste hizkuntza bat erabiltzea justifikatua izan beharko du. Jarduera erdaraz izan arren, ekintzaren propaganda euskaraz egingo da, eta berariaz aipatuko da ekintza ez dela euskaraz izango. Herritarrei ez zaie inolako mugarik jarriko euskaraz jarduteko, eta euskararen gutxieneko presentzia bermatuko da.
- Baimena jaso ondoren, ekitaldia egiteko zein iragartzeko udalak ezartzen dizkion irizpideak idatziz emango zaizkio.

Herritarrekiko Harremana

- Herritarrekiko harremanean euskararen erabilera bermatuko da programazioan parte hartzen duten eragile guztien aldetik.

Komunikazioa

a) Idatzizko euskarriak:

Herritarrei zuzendutako programazio orri, agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskaraz egongo dira.

b) Bozgorailuetatik igortzen diren mezuak eta jartzen den musika euskaraz izango dira, bai jarduera orokorretan, bai berezietan (prestaketetan, lehiaketetan, jaietan...).

c) Publizitatea euskaraz izango da, bai ahoz zein idatziz.

d) Sare sozial, webgune nahiz bestelakoetan jarriko den informazioa euskaraz egongo da.

e) Euskararen kalitatea:

Euskararen erabilera bermatu beharko da ahozko eta idatzizko ekintza guztietan, horretarako, beharrezkoa bada, laguntza eske udalera jo dezake baimen eskatzaileak.

f) Komunikazio elebiduna:

Euskaraz gain beste hizkuntzaren bat erabili behar denean, euskarari lehentasun osoa emango zaio, bai ahoz, bai idatziz.

Ele bitan edo hizkuntza gehiagotan eginiko argitalpenetan honako aukera hauek hartuko dira kontuan, hurrenkera honetan:

- Euskarazko bertsioan informazio guztia zehaztuko da, eta beste hizkuntzetako bertsioak euskarazkoaren laburpena izango dira.
- Argitalpena ele bitan edo hizkuntza gehiagotan egonez gero, alde batetik euskara hutsez irakurri ahal izatea lehenetsiko da.
- Euskara eta beste hizkuntzak bereizterik ez badago, euskarak izango du lehentasuna, bai hurrenkeran (aurrena euskara eta gero besteak), bai hizkiaren tamainan (3 puntuko aldea).

2 Ebaluazioa eta jarraipena

Gida honetan jasotako irizpideen betetze mailaren jarraipena egingo du udalak urtero, eta beharrezkoak badira, neurri zuzentzailek aplikatuko ditu.



Kultur programaziorako hizkuntza irizpideak

Udalerri euskaldunetan
erantzukizunez programatzeko gida

2026KO EKAINA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

